



**AGINDUA, SEGURTASUNeko SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA HASIERA EMATEA EUSKAL ZIBERSEGURTASUN AGENTZIAREN EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK GARATZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, XOEPL) arau hau bezalako arauak egiteko prozedura arautzen du, eta 12.1 artikuluan ezartzen du gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko direla.

Agindu honetan aipatutako prozeduraren antolamenduak, hasieratik bertatik, araua egitearen egokitasunari buruzko erabakia hartzea eskatzen du, bai eta arauaren beharrari eta bideragarritasunari buruzko gogoeta egitea ere.

XOEPLren 13.1 artikulua ezartzen du hasteko aginduak eduki hau izango duela:

**LEHENENGOA.- Prozedura hastea eta hasiera agintzeko eskumena.**

1. Agindu honen xedea da Euskal Zibersegurtasun Agentziaren eginkizunak eta eskumenak garatzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.
2. Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, XOEPLk 12.1 artikuluan ezartzen duenez, «xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da».

Hala ere, Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, segurtasunaren arloan eskumena duen sailari atxikia; beraz, Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legearen 5.e) artikulua araberan, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Administrazio Kontseiluari dagokio «Agentziaren estatutuak eta haren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko gainerako arauak onartzeko eta aldatzeko proposamena egitea, Eusko Jaurlaritzari helarazteko».

Beraz, prestatzeko prozedura Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez hasi behar da, Agentziaren Administrazio Kontseiluak proposatuta.



## **BIGARRENA.- Proiektuaren xedea eta helburua.**

Proiektu honek bi helburu ditu. Alde batetik, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren (Cyberzaintza) eginkizunak eta eskumenak garatzea eta zehaztea, bai eta oinarrizko jarduketara-araubidea eta hura betearazteko funtsezko prozedurak ezartzea ere. Eta, bestetik, autobabeserako EAEko arauaren mendeko jarduera jakin batzuetarako zibersegurtasun-arloko jarraipen-planak egiteko, bidaltzeko, gainbegiratzeko eta ikuskatzeko prozedura arautzea, bitarteko elektronikoen bidez izapidetzea barne. Era berean, jarraipen-planen erregistro orokor bat sortzea aurreikusten da.

## **HIRUGARRENA.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Ekainaren 29ko 7/2023 Legearen bidez, Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortu zen. 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Agentziaren xedea da zibersegurtasuna sustatzea eta koordinatzea Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean mugatutako euskal sektore publikoan, sektore horren eskumeneko informazio-sistemen eta sare elektronikoen segurtasunaren esparruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoa, haren administrazio publikoa, herritarrak eta enpresa-sarea zibersegurtasunean eta garapen digital seguruan treba daitezen laguntzea eta bultzatzea.

Xede hori garatzeko, Agentzia sortzeko Legeak ezartzen du Agentziari zenbait eginkizun dagozkiola, eta, ondoren, Agentziaren estatutuen bidez garatuz, auditoretza-funtzioa gehitzen zaiela.

Dekretu-proiektuaren zirriborroak Agentziari Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen martxoaren 19ko 34/2024 Dekretuaren bidez onartutako sorrera-legearen eta estatutuen bidez esleitutako eginkizunak garatzea jasotzen du. Estatutu horiek Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen Dekretua aldatzen duen otsailaren 17ko 15/2026 Dekretuaren bidez aldatu ziren.

Funtsean, Agentziaren berezko eginkizunak garatu nahi dira, eta beharrezkoak diren prozedurak ezarri, bai eta zibersegurtasun-arloko autobabes-planei buruzko EAEko araudia bete ere:

- Funtzio estrategikoak (EAEko zibersegurtasun-estrategia eta zibersegurtasun-eredua egitea, zibersegurtasunaren arloko jarduketak koordinatzea), auditoretza-funtzioak (informazioa biltzea, egiaztatzea, zibersegurtasun-planak

koordinatzea eta haiei laguntzea), funtzio operatiboak (zibersegurtasun-gorabeherak kudeatzea eta aztertzea, zaintza digitala eta alerta goiztiarra, zibersegurtasunaren arloko kontzientziazioa eta gaikuntza), erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak (administrazioen arteko lankidetzak, agintariekiko harremana eta kanpoko beste harreman instituzional batzuk), datuen bilketa eta agentziaren beste jardura batzuk, haren funtsezko eginkizunekin lotuta daudenak.

- Zibersegurtasunaren arloko jarraipen-planak eta jarraipen-planen erregistro orokorra.

Eginkizunak garatzeari dagokionez, Agentziak sortu zen xedea betetzen duela bermatzeko beharri erantzuten dio horrek, hau da, EAEko sektore publikoan zibersegurtasuna sustatzea eta koordinatzea, sektore horren eskumeneko informazio-sistemen eta sare elektronikoen segurtasunaren esparruan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zibersegurtasunaren eta garapen digital seguruaren arloko gaikuntza babestea eta bultzatzea, hori guztia eraginkortasunez, efizientziaz eta zuzenbidearen arabera.

Jarraipen-planei dagokienez, aurreikuspen hori garatzeko, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2024ko ekainaren 7ko Agindua betetzen dela bermatu behar da. Agindu horren bidez, zibersegurtasunaren arloko jarraipen-planak egitea arautzen da, autobabeserako EAEko arauaren mendeko jardura jakin batzuetarako.

Testuinguru horretan, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Administrazio Kontseiluak erabaki du Gobernu Kontseiluari proposatzea dekretu-proiektu hau onar dezala.

#### **LAUGARRENA. – Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.**

Izapidetzen ari den dekretu-proiektuak ez dakar inolako araurik indargabetzea edo aldatzea. Xedapen orokorra da, eta Agentziaren eginkizunak eta eskumenak garatzera eta gauzatzera mugatzen da, bai eta beharrezko prozedurak garatzera eta erregistro bat eratzerarekin ere, eta ez da bestelako aldaketarik edo eraginik aurreikusten ordenamendu juridikoan.

#### **BOSGARRENA. – Generoaren araberako eragina.**

Izapidetzen ari den arau-proiektuak ez die eragiten herritarren eskubide eta interes legitimoiei, baizik eta soilik Agentziaren eginkizun eta eskumenen erabilerari, ez eta beharrezko prozedurei eta erregistro bat sortzeari ere, eta, beraz, antolamenduzkoa baino ez da.

Beraz, ez da egokia generoaren araberako eraginari buruzko txosten bat egitea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20. artikuluan aurreikusitakoa; izan ere, aplikagarria da Jaurlaritzaren Idazkaritza Nagusiko eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren lehenengo jarraibidearen 2. puntuko a) eta b) letretan ezarritako salbuespena. Ebazpen horren bidez, generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren Erabakia argitaratzen da. (a) «Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez dutenak, emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina deuseza edo minimoa delako». Bestalde, b) apartatuak salbuespen gisa ezartzen ditu «funtsean antolaketa-izaera dutenak».

Kasu horretan, generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren orde, ikuspegi horretatik garrantzirik ez duela behar bezala justifikatzen duen txosten bat egin beharko da, aipatutako jarraibideen II. eranskinean aurreikusitako baldintzetan, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagokion egiaztapen-txostena egingo du.

#### **SEIGARRENA.- Aurrekontuan izango duen eragina.**

Espedienteari memoria ekonomiko bat erantsiko zaio, eta bertan adieraziko da arauak aurrekontuetan izan dezakeen eragina, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. eta 43. artikuluetan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13. eta 15. artikuluetan ezarritakoa betez.

#### **ZAZPIGARRENA. – Egin beharreko izapideak eta txostenak.**

1.- XOEPLren 13.1.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura hasteko aginduan adieraziko dira gaia dela-eta bidezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak. Kontuan hartu behar dira, halaber, Jaurlearitza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. eta 57. artikuluetan ezarritako prozedura-berezitasunak, aurrekoa aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako aldaketan ondoren, Eusko Legebiltzarrera bidaltzeari dagokionez.

Dekretu-proiektua idazteko, hasiera-agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezotasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kontsulten emaitzak ere.

Dekretu-proiektua idatzi aurretik, ez da beharrezkotzat jotzen aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan eta XOEPLren 11. artikuluan aurreikusitakoa; izan ere, dekretu-proiektua antolamenduzkoa baino ez da, eta Agentziaren funtzioen eta eskumenen egikaritzaren garapenari eta zehaztapenari baino ez dio eragiten, XOEPLren 17.5 artikuluan oinarrituta.

2. Agindu honen bosgarren atalean adierazitakoaren arabera, ez da generoaren araberako eraginari buruzko ebaluazio-txostenik sartuko, eta behar bezala justifikatu beharko da generoaren ikuspegitik ez duela garrantzirik, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideen II. eranskinean aurreikusitako baldintzetan.

3.- Arau-eraginaren azterketari buruzko memoria bat egingo da nahitaez. Memoria horrek, hasteko aginduari dagokionez, proposamena egin duen organoaren iritziz garrantzitsua izan daitekeen edozein alderdi jaso edo berretsi beharko du, eta, nolana ere, XOEPLren 15. artikuluan 3. apartatuak aipatzen duen edukia. Memoria horrek agindu-proiektuaren azterketa juridikoa jasoko du.

4.- Memoria ekonomikoa egiteko eskatuko da.

5- Dokumentu horiek egin ondoren, dekretu-proiektua aldez aurretik onartu beharko da, Segurtasuneko sailburuaren agindu baten bidez.

6.- Hasteko agindua eta aurretiaz onartzeko agindua, arau-proiektuarekin batera, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko dira, arau-proiektuarekin batera, XOEPLren 13.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakiaren seigarren apartatuan xedatutakoaren arabera. Erabaki horren bidez, araugintza-xedapen orokorrak egiteko prozeduraren oinarritzko izapidetze-eredua onartzen da, XOEPLren arabera. Argitalpen hori automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

7.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoaren arabera, lege horretan xedatutako publizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko, Legegunean argitaratuko da. Era berean, espediente osatzen duten memoriak eta txostenak argitaratuko dira.

8.- Aldez aurreko onarpenaren ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluen 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, ekainaren 2ko 8/2016 Legeak sartutako alaketaren ondoren.

9.- Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, XOEPLren 16. artikuluen arabera, bidezkoak izan daitezke erregelamendu bidez sartutako edo funtsezkoak ez diren txosten hauek eta Administrazio Orokorreko sailei egindako kontsulta hauek. Guztiak aldi berean eta hilabeteko epe komun berean egingo dira, xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa argitaratzen denetik aurrera:

- a) EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 20.6 artikuluan ezarritakoa betetzeko (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikuluan eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 14.2 artikuluan eskatutakoaren arabera.

c) Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren arabera, «1. Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak, bere zerbitzu juridikoen bidez, ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz». Txosten hori nahitaezkoa da xedapen orokorrak egiteko prozeduran.

Beraz, nahitaezko txostena bada ere, nahikoa izango da arau-eragina aztertzeo memorian aipatzea, proiektatutako arauaren xedeak ez baitu inolako eraginik enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan.

d) Enplegu Publikoko Zuzendaritzaren txostena, ez dagokio, ez du eraginik langileen arloan. Lehendik dauden funtzioak baino ez dira garatzen.

e) Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 17.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren arabera, Aurrekontu Zuzendaritzari dagokio eduki ekonomiko garrantzitsua duten arau-proposamenei, planei, hitzarmenei eta akordioei buruzko txostenak egitea, aurrekontu-inpaktua ebaluatzeko eta dagozkion doikuntza-neurriak proposatzeko, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

10.- XOEPLren 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldi, jendaurreko informazio eta negoziazio kolektiboko izapideei dagokienez, lege horren 17.1 artikuluan xedatutakoa betetzen da. Horren arabera, arau-proiektuak ez badie eragiten herritarren eskubide eta interes legitimoei, entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapideak alde batera utzi ahal izango dira. Aurrekoa gorabehera, aipatutako artikulua 5. apartatuaren arabera, izapide horretatik salbuetsita geratzen dira, besteak beste, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo haren mendeko edo hari atxikitako erakundeen xedapen organikoak, salbu eta herritarrek Administrazioaren eginkizunetan duten parte-hartzeari buruzkoak badira».

11. Ez da beharrezkoa beste administrazio batzuei kontsulta egiteko izapidea egitea (XOEPLren 18. artikulua); izan ere, aldaketa Agentziaren eginkizunak eta eskumenak garatu eta zehaztera mugatzen da, bai eta beharrezkoak diren prozedurak garatzera eta zehaztera ere. Gainera, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren Administrazio Kontseiluan bertan ordezkaturik daude, besteak beste, foru-aldundiak, EAEko lurralde historikoetako hiru hiriburuetako udalak, EUDEL eta EJIE. Organo hori arduratzen da, hain zuzen ere, Agentziaren estatutuak onartzea proposatzeaz, Eusko Jaurlaritzari helarazteko.

12. XOEPLren 19. artikulua arabera, nahitaezko eta funtsezko txosten eta irizpen hauek eskatu beharko dira:

- a) Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharrekoa, XOEPLren 23. artikuluan, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan jasotako aurreikuspenei dagokienez.

Txosten hori 15 eguneko epean egin beharko da, Kontrol Ekonomikoko Bulegoan arau-xedapenaren proiektuaren testua eta edukiaren arabera eskatutako dokumentazioa jasotzen direnetik zenbatzen hasita.

b) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, XOEPLren 25. artikulua arabera eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikulua aplikatuz.

9/2004 Legearen 26. artikulua xedatzen duenez, Batzordearen irizpenak emateko epea haren entzunaldia aurreikusten duen xedapenean adierazitakoa da, eta, halakorik ezean, kasu honetan bezala, epea bi hilabetekoa izango da.

13. Eusko Legebiltzarrera bidaltzea. Ekainaren 2ko 8/2016 Legeak 2. apartatua gehitzen dio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluari. Horren arabera, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidaltzen den dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrera bidali behar da, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

14. Prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dituen, XOEPLren 24.2 artikuluan ezarritakoa betez.

15. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikulua c) letraren arabera, Jaurlaritzari dagokio Eusko Legebiltzarrak emandako legeak garatzeko eta betearazteko erregelamenduak dekretu bidez onartzea.

16. Dekretu-proiektuaren publizitateari eta argitalpenari dagokienez, XOEPLren 29. artikulua eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikulua arabera, erregelamendu-arauak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

Halaber, Legegunean argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea betez.

#### **ZORTZIGARRENA.** – Idazketa-sistema.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikulua eta XOEPLren 14.5 artikulua arabera, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurreko onarpenera jaso eta instrukzio-fasean izapidetu aurretik.

Era berean, eta XOEPLren 27.3 artikulua arabera, behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko diren euskarazko eta gaztelaniazko testu artikulatuen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IZO) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak ziurtagiri bat emango du argitaratu aurretik, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak zehatzak eta baliokideak direla egiaztatzeko, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera.

**BEDERATZIGARRENA.-** Espedientea izapidetzeko ardura duen organoa

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza arduratuko da proiektu hau bideratzeaz, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**HAMARGARRENA.- Arauaren egokitasunaren justifikazioa.**

Dekretu-proiektu hau Urteko Araugintza Planean sartuta dago. Plan hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 24ko 34/2026 Ebazpenaren bidez onartu zen, eta 2026rako Urteko Araugintza Plana onartzen duen Erabakia argitaratzea xedatzen du; zehazki, eranskinaren 7.12 apartatuan.

Azaldutakoagatik, eta XOEPLren 13.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

## **EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Hasiara ematea Euskal Zibersegurtasun Agentziaren eginkizunak eta eskumenak erregelamendu bidez garatzen dituen dekretu-proiektua egiteko prozedurari. Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortzeko ekainaren 29ko 7/2023 Legean eta Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen martxoaren 19ko 34/2024 Dekretuan daude jasota eginkizun eta eskumen horiek. Dekretu hori Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen dekretua aldatzeko otsailaren 17ko 15/2026 Dekretuaren bidez aldatu zen.

**BIGARRENA.-** Prozedura hasteko agindu hau Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzara bidaltzea, hori baita proiektua bideratzeko ardura duen organoa.

**HIRUGARRENA.-** Agindu hau Legegunean (EAeko araudiaren ataria) argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13.d) artikuluan eta Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

**LAUGARRENA.-** Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Argitalpen horren bidez, automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrek egin ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

Bingen Zupiria Gorostidi  
SEGURTASUNeko SAILBURUA  
SEGURTASUNeko SAILBURUA